



2011

CHILLIDA-LEKU, JATORRIRA BUELTAN

**Esti Zeberio
(HERNANI 2011)**



Eduardo Chillidak 1997. urtean bihurtu zuen Zabalaga baserria bere obren tailer eta ostatu. Denbora gutxira, hiru urteren buruan, kulturalki eta turistikoki Hernaniko altxor garrantzitsuenetakoa bilakatuko zen Chillida-Leku museoa zabaldu zuten bertan. Museoak hamar urtez izan ditu atek zabalik, eta 2010eko abendua geroztik itxita dago. Egun, jatorriko funtzio bera du, nahiz eta Chillida familiaren eta erakunde publikoen helburua museo gisa berriz ere funtzionatzera iristea den.

Idealena, toki batekoa izatea da, sustraiak toki batean izatea, baina gure besoak mundu guztira zabaltzea, hitz horiekin definitu zuen Eduardo Chillida eskultore donostiarrak bere ametsa, eta handik kilometro gutxira bilakatu zuen egia: Hernanin, Chillida-Leku museoan. 2000ko irailaren 16an inauguratu zen ofizialki eskultorearen obren etxe izango zen Chillida-Leku museoa, eta hamar egunetara zabaldu zuten bisitariarentzat. Handik aurrera bere bidea hartu zuen, beti ere Eduardo Chillidak ezarritako ideien ildoak jarraituta: museo ireki bat bilakatu zen, dinamikoa, arte ezberdinen elkarrizketa jasoko zuena, bakerako eta gogoetarako leku izango zena. Hamar urteetan egun guztietan zabalik egon ostean ordea, 2010eko abenduaren 31n atek itxi behar izan zituen, arazo ekonomikoak medio.

Museoaren etena, krisi ekonomikoak eraginda

Museoa pribatua izaki, Chillida-Lekuko ekonomiak azken urteetan jasandako egoera defizitarioak eragin zuzena izan zuen bere historian, hau izan baitzen itxieraren eragile nagusia. 2010eko urte hasieran enplegua erregulatzeko espedientea eskatu zuen museoak, eta garbi azaldu zuten urtarriletik aurrera museoaren itxeko erabakia. Chillida familiak egindako adierazpenean, azaldu zuen, krisi ekonomikoa dela eta, museoaren egoera ekonomikoak nabarmen egin zuela okerrera. Azpimarratu zuten, zifra defizitarioak ikaragarri igo zirela, eta Chillida-Leku museoaren bezalako ekimen pribatu batek ezin ziola egoera horri eutsi.

Ixteko erabakia, hasiera batean, behin-behinekoa izan zen, Chillida familiak hasieratik erakutsi baitzuen erakunde publikoekin akordio batera iristeko prest zegoela. Hala ere, akordio horretan derrigorrezkoak izango ziren baldintza batzuk ezarri zituzten, beraien esanetan, Eduardo Chillida eta Pilar Belzuncek museoaren etorkizuna ziurtatzeko ezarritakoak.

Akordiorik gabeko negoziaketak

Museoa itxita, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputazioarekin negoziatzen hasi zen Chillida fami-



Hernasax taldea hernaniarrak 2007ko uztailan Chillida-Leku museoan kontzertu bat eskeini zuen.



Musika Hamabostaldia Zabalagan, Alexei Volodinen kontzertua.

lia. Ordutik egin dituzten bilerak eta negoziaketa saioak ez dute momentuz etekinik izan, eta akordio-rik ezean, museoak bisitarientzako itxita jarraitzen du. Momentuz, Eduardo Chillidaren ondarea zaintzen dihardu familiak, eta eskultorearen obra artistikoa ezagutu nahi dutenek bakarrik dute museoa bisitatzeko aukera. Hortaz, gutxi batzuk izan dira azken urte honetan pribilegio hori izan dutenak, museoa bera, ohituta baitzegoen urtean zehar milaka bisitariri ongi-etorria egitera.

Jatorri, adin eta jakin-min ezberdineko bisitariak

Chillida-Lekuk modu askotako ibilbideak eskaini izan dizkie bisitariei museo gisa zabalik izan den hamar urteetan. Eskultorearen obra bakoitza era estrategikoan dago kokatuta, autoreak berak nahi zuen bezala, naturarekin eta gainontzeko piezekin elkarriketan. Horrek berezi egiten du museoa, eta bisitari bakoitzari bere ibilbide propioa egiteko aukera ematen dio. Museoko txoko, bazter bakoitzetik ikuspegia aldatu egiten da, eta horrek Chillidaren obra ezagutu eta ikusteko modu ugari ahalbidetzen ditu. Ziurrenik hori da hain jatorri, adin eta jakin-min ezberdineko bisitariak erakarri izanaren arrazoietako bat.

2008. urtean egindako inkesta baten arabera, bisitarien asetze maila ia erabatekoa izan zen, eman-

dako puntuazioaren arabera, 3,54ko nota jaso zuen museoak, kontuan izanda gehiena 4 zela. Eta hau ez zen inkesta horren daturik esanguratsuenaren izan. Luis Chillida eskultorearen semeak azaldu zuenez, bisitarien %89,54k itzultzeko prest zegoela erantzun zuen, eta hori bereziki adierazgarria da museo monografiko batean. Kontuan izan behar da Chillidaren obra estatikoa dela, eta hala mantendu dela museoaren irekieratik.

Udako Solstizioa, Sagardo Eguna, Musika Hamabostaldia... ekimen ugariaren agertoki izan den museo

Eduardo Chillidaren obren erakusketaz gain, beste hainbat artisten lanak zabalduak da museoak. 2003. urtea geroztik, hainbat ekimenen parte eta agertoki izan zen, hala nola, Udako Solstizioa, Musika Hamabostaldia, Sagardo Eguna, kontzertuak... arte ezberdinak uztartzeko asmoarekin, eskultoreak hainbestetan aipatuta elkarriketa sortzeko intentzioarekin antolatutako ekitaldiak izan ziren hauek. Horiez gain, beste hainbat artisten artelanak ere izan dira ikusgai museoan.

Ekimen hauetako askotan gainera, hernaniarrek hainbat abantaila zituzten museo bisitatzeko orduan, Hernaniko Udalak eta Chillida - Pilar Belzunce Fundazioak sinatutako hitzarmenari esker.

Chillida-Leku, obren ostatu

Chillida-Leku museo gisa zabaldu baino urte asko lehenago ezagutu zuten Eduardo Chillida eta Pilar Belzuncek Zabalaga baserria. 1984a zen, eta Santiago Churruca, orduko jabea zenaren gonbidapena jaso zuen bikoteak. Zabalaga baserria, erakina bera ia hondakina zen, erortzeko zorian zegoen, baina berehala konturatu ziren hura zela ametsetako egitasmoa egia bihurtzeko leku ideala. Hamar urteren buruan eman zituzten egitasmoa aurrera eramateko urratsak, eta 1997. urtean bihurtu zuen Eduardo Chillidak Zabalaga baserria, bere obren ostatu. Handik hiru urtera hartu zuen Chillida-Lekuko museo nortasuna, eta 2000tik 2010era hala funtzionatu ostean, joan den urteko abenduaren 31n jatorrira bueltatu zen Zabalaga baserria, Eduardo Chillidaren obren etxe izatera. Chillida-Lekuren funtsa ordea, bertan gordetzen den altxorra gizarteratzea da, museo gisa. Eta hori etorkizunean hala izan dadin, lanean dihardute.

LUIS CHILLIDA

Eduardo Chillidaren semea eta Chillida-Lekuko arduraduna

Eduardo Chillidaren obra eta nortasuna inork gutxi bezala ezagutzen ditu Luis Chillidak, semeak. Chillida-Lekuren sorrera, bizitza eta etorkizuna lehenengo pertsonan erantzun ditu, ondorengo lerroetan.

Eduardo Chillida eta Pilar Belzuncek 1984an ikusi zuten aurreneko aldiz Zabalaga baserria eta honen inguruko terrenoak, etorkizunean Chillida-Leku museoa izango zirenak. Zergatik aukeratu zuten Hernani Chillida-Leku museoa eraikitzeko? Eduardo Chillidaren obraren bilakaeran Hernani beti izan zen leku erabakigarria. Kontuan izan behar da 50eko hamarkadan Manuel Illarramendiren sutegian egin zuela bere lehenengo burdinazko eskultura ez figuratiboa. Hori alde batera utzita ere, 80ko hamarkadan Zabalaga baserria aurreneko aldiz ikusi zuenean zerbait berezia sentitu zuen, nahiz eta baserria galbidean, erortzeko zegoen; azkenean topatu zuen hainbeste bilatu zuen lekua.

Urteek aurrera egin zuten, eta 1997ra arte ez zuen Eduardo Chillidak bere ametsa egia bihurtu. Handik hiru urtera berriz, museo gisa inauguratu zuten Chillida-Leku. 1997. urtean era pribatuan ospatu genuen Chillida-Lekuren adaptazioa, eta Zabalaga baserriaren zaharberritzea; Bach kontzertu batekin ospatu genuen. Momentu horretan lantoki bat zen eta publikoari zabaltzeko ez zuen zentzurik. Hala ere, mundu osoko arte maitaleen deiak jasotzen genituen, eta guk nola ez, ateak zabaltzen genizkien, gaur egun ere egiten dugun moduan.

Publikoarentzat, ofizialki 2000ko irailaren 16an zabaldu zen museoa, eta inaugurazio hori Eduardo Chillidaren gaixotasunak markatu zuen, bere bizitza laboralaren bukaera ekarri baitzuen.





Eduardo Chillida 2002an zendu zen. Bere obra eza-gunagoa eta baloratuago izan al da museoa zabaldu zenetik? Artista handi guztiakin gertatu ohi den moduan, bere heriotza erabakigarria izan zen, nahiz eta bizitu zen bitartean ere eskultore ezaguna eta baloratua izan zen. Chillida-Lekuri dagokionez, heriotzak artearen maitaleak gure herrira gerturatzea ekarri zuen, Chillidaren azken kreazioa ezagutzera: Chillida-Leku.

Zein da Chillida-Lekuko bisitarien perfila? Era guztietako bisitariak izan ditugu, eta hasieratik egin dugu hauek hobeto ezagutzeko ahalegina. Hasieratik ikertu zen hauen jatorria eta zergatik bisitatzen zuten museoa. Asebetetze inkestak ere egiten genituen, eta 2008. urtean ISO 2001 sistema jarri genuen martxan, datu hauek guztiak zehatzago aztertu eta ezagutzeko asmoarekin. Orokorrean, bisitari gehienek ezagutzen zuten Eduardo Chillidari buruzko zerbait, eta portzentajeetan aztertuz gero, %25ek eskultorea oso ondo ezagutzen zutela esan genezake; beste %25ek ezagutza zabaltzeko asmoarekin bisitatu zuen museo; bisitarien %15 inguru ikasleak izan ziren; eta gainerako %35 turistak eta aldizkako bisitariak ziren. Paraje honetara gerturatzen dena ez da kasualitatez etortzen, honaino iristeko, asmoa eduki eta bilatu egin behar da.

Chillida-Leku bisitatu duen %89,5ek berririo itzuliko litzatekeela dio. Zein da museoaren sekretua? Artea eta natura uztartzeak egiten du bisita bakoitza berezia, bakarra izatea. Museoak duen eremua kontuan izanda beti geratzen da ezagutu gabeko zerbait, nik ia egunero ikusten dut eta beti topatzen dut zerbait berria.

Era guztietako ekitaldi kulturalen agertoki izan da Chillida-Leku. Euskal kulturaren plataforma berri bat izan al da museo? Ekitaldi artistiko eta kultural hauek guztiak programa baten barruan egiten ziren, Artearekin erlazioan izeneko programaren barruan. Erlazio zuzena zegoen Chillidaren obra eta bizitzaren artean, paisaiaren artean eta ekitaldi artistiko eta kulturalen artean. Sinbiosi honen harira proposamen bikainak jaso izan ditugu, eta honi esker artista eta sortzaile ezberdinak ezagutu ditugu.

Beraiek gure proiektua aberastu dute, eta gu beraien plataforma izan gara.

Eta Hernanirentzat, zer suposatu du museoak? Eta orokorrean, Gipuzkoarentzat? Hernanirentzat ekipamendu kultural ikaragarria izan da, artistak berak bere kabuz askatasun osoarekin egin zuena eta bere herriarekin, bere tokiarekin lotura zuzena suposatu zuena. Bestalde, museoak izan duen eragina neurtzeko ikerketa bat egingo bagenu, ziur nago inguruko beste aktibitate batzuentzat aberasgarria izan dela.

Joan den urtean, museoaren 10. urteurrena ospatu zenuten. Zein dira egun hartaz dituzun oroitza-penak? Egundik oso berezia izan zen, baina onartu beharra daukat handik gutxira gertatuko zenaren itzala atzetik genuela. Hamar urte hainbeste pertsonekin ospatzea oso garrantzitsua izan zen, 2.500 pertsona gerturatu ziren egun horretan Chillida-Lekura.

Itzal hura hilabete gutxira bihurtu zen egia. 2010eko abenduaren 31n museo itxi egin zenuten bisitariarentzat. Ordutik bilera ugari egin dituzue erakunde publikoekin, baina momentuz ez dago akordiorik. Hala ere, azken aldiko zurrumurruek esperantzagarriak dira. Nola ikusten duzu etorkizuna? Etorkizuna iristear dagoen zerbait da. Ni izaeraz baikorra naiz, eta gure herriarentzat azkeneko hamarkadetan egin dugun lan guztia ezin du momentuko krisi batek zapuztu. Soluzioak bilatu behar dira, eta horretan lanean ari gara. Soluzioak serioak izan behar dira, etorkizunera, epe luzera begira egindakoak.

“Azken hamarkadetan egin dugun lan guztia ezin du momentuko krisi batek zapuztu”

Zein da Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren eginbeharra Chillida-Leku berririo zabaltzeko? Chillida-Leku bere egileak sortu zuen bezala babestea eta mantentzea ziurtatzea bilatzen dugu. Gure ustez, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak dira etorkizunera begira hori ziurtatu dezaketenak, museoaren etorkizuna ziurtatzeko gaitasuna baitute.

Hernaniko Udalak zerbait egin al dezake? Gure Udalarekin beti izan dugu erlazio estua, baina neurri honetako proiektu batek babes handia behar du. Horrek ez du esan nahi Hernaniko Udalaren babesa ahazten dugunik, jaso dugun babes eta laguntza guztia eskertzen dugu.